



nekatur

Euskadiko landa ostatu en elkartea
Asociación de alojamientos rurales de Euskadi

Zerbitzu- Katalogoa

Nekazal
turismoak,
landa etxeak
eta landa
apartamentuak

www.nekatur.net



1

**Zergatik Nekatur, Euskadiko
landa ostatuaren elkarte** 3

1.1 Nola izan **Nekatur**ren parte aktibo 4

2

Gure balioak 5

3

Elkartekideentzako zerbitzuak 6

3.1 Gure aholkularitza eta informazio zerbitzu
pertsonalizatua eskaintzen dizugu 6

3.2 Gure bazkideen eskubide eta interesen alde
lan egiten dugu 7

3.3 Zure landa ostatuaren digitalizazioan eta
berrikuntzan lagunduko dizugu 8

3.3.1 Digitalizazioa eta tresna teknologikoak

3.3.2 Berrikuntza

3.4 Akordioak negoziatzen ditugu
hornitzaileekin zuk aurrezteko 9

3.4.1 Zuretzat

3.4.2 Zure bezeroarentzat

3.5 Marketin-estrategia komunak diseinatzen
ditugu 12

3.5.1 Sustapena eta komunikazioa

3.5.2 Merkaturatzea

3.5.3 Turismo produktuak eta esperientziak
sortzen laguntza

3.6 Zure beharretara egokitutako prestakuntza
eskaintzen dizugu 16

3.7 Landa turismoaren kalitatea,
jasangarritasuna eta inklusibitatea
bultzatzen ditugu 17

3.7.1 Kalitatea

3.7.2 Jasangarritasuna

3.7.3 Inklusibitatea

4

Nekaturreko taldea 19

5

Nola egin bazkide Nekaturren 20

5.1 Irekitzeko prozesua 20

5.1.1 **Nekatur**ren aurreatxikitu nahi duzu?

5.1.2 Nola laguntzen dizugu irekitzeko prozesuan?

5.2 **Nekaturri** atxikitzeko baldintzak 23

5.3 Nola izan **Nekatur**ren parte: bazkide egiteko
pausoak 24

5.3.1 Zure landa ostatua aurreatxikitze eskaera-
prozesua

5.3.2 Zure landa ostatua atxikitze eskaera-
prozesua

5.4 Aurkeztu beharreko dokumentuak 25

5.5 Kuotak 26

5.5.1 Aurreatxikitze konpromisoaren kuota

5.5.2 Atxikitze-kuota eta urteko kuota orokorra

5.5.3 NekaErreserben kuota

Zergatik Nekatur, Euskadiko landa ostatuen elkartea



AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN

nekatur

Euskadiko nekazalturismo, landetxe eta landa apartamentu turistikoen jabeen lehen elkarteak garelako.

Euskadiko landa ostatu arautuen %70 baino gehiago biltzen dugulako.

1991tik, gure bazkideei laguntzen jarraitzen dugulako landa ostatua irekitzen, martxan jartzen eta helduaroan zehar.

HEMEN KLIK EGINDA,
BAZKIDETZEAREN ABANTAILA
GUZTIAK ESKURA DITZAKEZU

Eta elkartekideen
arteko lankidetzak
eta sinergiak
sustatzen
ditugulako.

Honako hauek eskaintzen dizkizugulako:

- Sinesgarritasuna:** Turismo arloan errespetatutako elkarte bateko kide izateak sinesgarritasun handiagoa eman diezaioke zure negozioari eta landa ostatuari bezeroen aurrean. Bisitatzen gaituztenek konfiantza handiagoa izan dezakete **Nekaturreko** kide den landa ostatu batean, elkarteak ordezkatzeko dituen kalitate- eta zerbitzu-estandarrek direla-eta.
- Interes komunen defentsa:** **Nekaturrek** landa ostatuen jabeen interesak ordezkatzeko eta defendatzeko dituen tokiko eta nazioko agintarien aurrean, bai eta beste hainbat esparru garrantzitsutan ere.
- Ikusgarritasuna eta sustapena:** Elkartekide izatean, zure landa turismoko negozioa **Nekaturrek** aintzatetsitako eta sustatutako sare ezagun baten parte izango da. Horregatik, zure ikusgarritasuna areagotu egingo da, bai tokian-tokian, bai nazioan eta bai nazioartean.
- Networking eta lankidetzak:** **Nekaturrekin** bat egitean, landa-ostatuaren beste jabe batzuekin eta turismo-sektoreko profesionalekin konektatzeko aukera izango duzu. Horrek lankidetzak, esperientzia-trukeak eta negozio-aukerak ekar ditzake.
- Prestakuntza eta baliabideak:** **Nekaturrek** prestakuntza-programak, tailerrak eta tresna teknologikoak eskaintzen ditu zure kudeaketarako, marketinerako eta bezeroen zerbitzurako gaitasunak hobetzeko.
- Informazioa eta joerak eskura:** **Nekaturrek** bete beharreko araudien, eskura ditzakezun laguntza/ dirulaguntzen, landa-turismoko azken joeren eta zure negozioarako funtsezkoak diren sektoreko beste albiste batzuen berri ematen dizu.

ZERBITZU-KATALOGOA

Zalantzarik
gabe, elkarrekin
indartsuagoak
garelako, egizu
bat Nekaturrekin!



1.1 Nola izan Nekaturen parte aktibo

Nekaturen antolaketa-egiturak lurralde-jarduketako lau maila ditu, eta guztietan parte har **dezakezu**:

- **Batzar Nagusia**: Elkartearen Organo Gorena da, eta elkartekide guztiak biltzen dituen urteroko topaketan gauzatzen da.
- **Zuzendaritza Batzordea**: Turismoa garatzeko plan globalak egiteaz arduratzen den autonomia mailako organoa. Plan horiek sektore osoak zehaztu eta adostu behar ditu. Probintzia bakoitzeko lau bazkidek osatzen dute.
- **Batzar Probintziala**: Planak zabaltzen ditu probintzia mailan, establezimendu **bazkideen** beharrak antzematen ditu eta Zuzendaritza Batzordeari jarduerak proposatzen dizkio.
- Eskualde-mailan, **eskualdeko koordinatzailea** arduratzen da bere eskualdeko elkartekideei egiten diren ekintzei buruzko informazioa emateaz, eta haien beharrak/zalantzak eta iradokizunak Zuzendaritza Batzordeari helarazteaz.

Bestalde, **Nekatur**rek bulego fisikoa du Donostian, elkartearen jarduerak kudeatzen eta garatzen dituen talde **tekniko profesional** batekin, eta urte osoan irekita dago.



AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATUREN

ZERBITZU-KATALOGOA

Gure balioak



Nekaturren turismo jasagarria bultzatzen dugu Euskadin, gure ondare kulturala, ingurune naturala eta bizimodua babesteko.

Hori lortzeko, estrategia bat izan behar dugu, etengabe hobetzen lagunduko diguna, establezimendu elkartuen jarraitutasuna bermatzeko, eta haien lehiakortasuna hobetzeko.

Estrategia horrek balio batzuk ditu berekin, balio hauek elkartekideen artean hedatzen dira eta bisitatzen gaituzten pertsonei ematen diegun zerbitzuan islatzen dira.

Balio hauek partekatzen badituzu, Nekatur zuretzat da

AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN

KONFIANTZA

BIKAINTRASUNA

LANKIDETZA

ENPATIA

GARDENTASUNA

Gure balioak egunero lan egiteko motorra eta arrazoia dira, gure elkarte kopuruz eta, batez ere, erantzukizunez hazteko.

Landa-esperientzia osoa eskaini nahi diegu bisitatzen gaituzten pertsonei, Euskadiko paisaiak eta kultura ezagutzera gonbidatu eta, horrela, nekazaritzamundua eta landa-turismo jasagarri eta inklusiboa indartzen lagundu.

EZAGUTU GEHIAGO NEKATUR



ZERBITZU-KATALOGOA

Elkartekideentzako zerbitzuak



AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN

nekatur

Nekaturen badakigu zer den landa ostatu bat kudeatzea, eta jakin badakigu bide zaila izan daitekeela. Horregatik, Euskadiko Landa Ostaturen Elkartean lagundu eta aholkatu egingo dizugu, elkarrekin egingo dugu bidea.

Nekaturen parte izanda, zerbitzu-eskaintza zabala izango duzu eskura eta, zalantzarik gabe, zure eguneroko kudeaketa erraztuko dute, eta aliatu izango dituzu balizko oztopoen aurrean.

3.1 Gure aholkularitza eta informazio zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen dizugu

Behar duzun guztietan hemen gaituzu:

Aholkularitza pertsonalizatua eta etengabea

Nekaturen lan egiten dugunok zure zalantzei eta galderei erantzuten diegu, eta konpondu behar duzun horretan laguntzen dizugu, aholkuak emanez araudi aldaketak daudenean, eskaintzen dizkizugun kudeaketa-tresnen erabileran, egoera berezietan eta premia hauetakoren bat duzunean:

- Araudiak betetzea.
- Protokoloak, kalitate-sistemak ezartzea, etab.
- Ostatura kudeatzeko tresnen erabilera.
- Laguntzen bidezko finantzaketa.
- Zure eguneroko jarduera erraztuko duten laguntza eta diru laguntzak bilatzea.

Bazkideari ematen zaion informazioa

Elkartekideek asko baloratzen dute eskura dituzten dirulaguntzen inguruan ematen diegun informazio guztia, gainera, lagundu egiten baitiegu eskaera-prozesuan.

Hitzarmen, dirulaguntza, araudi, eta abarri buruzko komunikatuak dira, besteak beste, gure bazkideekin aldizka partekatzen ditugun informazioak.

ZERBITZU-KATALOGOA



3.2 Gure bazkideen eskubide eta interesen alde lan egiten dugu.

Nekaturren lelo bat dugu: **batasunak egiten du indarra.**

Benetan sinesten dugu asoziazionismoan eta bazkideen arteko lankidetzan. Kolektibo gisa jokatzeko dugu elkartekide guztien eskubide eta interesen alde, bai eta akordioak eta onurak denontzat lortzen ere.

Solaskideak gara hainbat instituzioren aurrean, hala nola, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta beste hainbat, eta eskualdeko erakunde turistiko eta beste organismo interesgarri batzuekiko lankidetzan sustatzen dugu:

- Modu kohesionatuan lan egiteko proiektuetan eta turismo-garapeneko planetan.
- Landa-turismo iraunkorraren garapena eta defentsa babesteko, bai eta Euskadiko landa-ingurunearen eta landa ostatuaren benetakotasuna ere.
- Landa-inguruneke lanari balioa emateko, gazteak sartzen indar berezia jarritz.
- Beste erakunde batzuen estrategiak babesteko, nekazaritza jasangarria sustatze aldera.

Sektoreari eragiten dioten araudi-aldaketekekin zerikusia duten lan-mahaietan parte hartzen dugu:

- Indarrak batu eta araudi horien baldintzak hobetzeko.
- Araudi horiek sektorean izan dezaketen eragin negatiboa minimizatzeko.

AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN

ZERBITZU-KATALOGOA

3.3 Zure landa ostatuaren digitalizazioan eta berrikuntzan lagunduko dizugu

3.3.1 Digitalizazioa eta tresna teknologikoak

Zure negozioa digitalizatuta izateak erraztu eta arindu egiten du eguneroko kudeaketa eta betebeharrak betetzea, eta zure bezeroari erraztasunak eskaintzen dizkio erreserba-prozesuan, check-inean eta egonaldian. Horretarako, **Nekaturen** familiaren parte izanda, doako sarbidea izango duzu zure ostatua araudiaren arabera kudeatzeko behar dituzun tresna teknologiko guztietara.



PMS
Nekagest

App
Nekatur

Norberaren
web-orrirako
erreserba-
motorra
doan

Channel
Managerra
prezio
murritzuan

AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATUREN

PMS Nekagest

Doako **kudeaketa-programa** da eta zurearen antzeko establezimenduetara egokitua dago. Horrekin, zure landa ostatuaren **gestio integrala** egin ahal izango duzu:

- Aurrekontuak, aurre-erreserbak eta erreserbak sortu eta kudeatu egutegi bakarraren bidez.
- Online aurre-erregistroko tresna; Turismok eskatutako bezeroaren sarrera eta irteera fitxak sortzen ditu.
- Bidaiarien erregistroa sortu eta Ertzaintzara bidali.
- TBAI fakturazioa (BATUZ sistemarekin sinkronizatua Bizkaian).
- Salmenta Puntuko Terminal birtualaren bidezko kobrantzak.
- Bezeroen datu-basea.
- Kontabilitatea eta barne estatistikak.
- EUSTATERa datuak bidali.

Nekatur APPa

Kudeaketa azkarrerako. Hauek ditu barne:

- Erreserben kudeaketa, online aurre-erregistroa, etab.
- **NekaScan**, nortasun-agiriak eskaneatzeko eta datuak Ertzaintzara bidaltzeko aplikazioa, Turismok eskatutako sarrera eta irteera fitxak ere sortzen ditu.

Norberaren web-orrirako erreserba-motorra doan

Nekatureko egutegiarekin sinkronizatuta, ez du garapen informatikorik behar.

Channel Managerra prezio murritzuan

Toki bakar batetik salmenta-atari desberdinetan dagoen informazioa kudeatzea ahalbidetzen du, **Nekatureko** egutegia atari horiekin sinkronizatuta.

ZERBITZU-KATALOGOA



AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN

nekatur

3.3.2 Berrikuntza

Nekaturren badakigu zer esan nahi duen berrikuntzak landa ingurunean eta zer zailtasun izan ditzakeen. **Nekaturri** atxikitako landa ostatua izateak ere abantailak eta laguntza ematen dizkizu zure berrikuntza-prozesuan.

Zuntz optikoa landa ingurunean

Nekaturren landa ostatu bazkide guztien konektibitate-azterketa eskaintzen dugu. Konexioa izateko planifikatu gabeko esku-hartzeen kasuan, enpresa hornitzaile batekin egindako akordioa jartzen dugu gure bazkideen eskura, eta zera lortzen da:

- Azterketa egitea balizko soluzioari eta hori ezartzeari buruz.
- Laguntzen kudeaketa Banda Zabala jartzeko.

3.4 Akordioak negoziatzen ditugu hornitzaileekin zuk aurrezteko

Azterketak egiten ditugu hornitzaile onenak aukeratzeko. Haiekin baldintza eta tarifa onuragarriak negoziatzen ditugu, zure kostuak murrizteko.


3.4.1 Zuretzat

Nekaturren, Euskadiko Landa Ostaturen Elkarte gisa, akordio garrantzitsuak lortzen ditugu hornitzaileekin, taldea garen aldetik dugun indarrari esker.

Araudiak betetzea

Araudi guztiak bete ahal izan ditzazun, hornitzaileen zerrenda bat eskaintzen dizugu, eta horiekin aurreztu ahal izango duzu. Aldi berean, lasaitasuna emango dizu **Nekaturren** konfiantza duten profesionalak direla eta hainbat araudiren inguruan lagunduko dizutela jakiteak, esate baterako:

- Legionellaren kontrola; 700€rainoko aurrezkia.
- Tentsio baxuko instalazioa; 200€ko aurrezkia.
- Larrialdien aurreko autobabes-planak; 400€rainoko deskontua.
- Erantzukizun zibileko aseguruak; %30eko deskontua.
- Su-itzalgaileen azterketa eta tinbratua.
- Etab.



Eguneroko kudeaketa

Zure eguneroko kudeaketak behar baino gehiago ardura ez zaitzan, **Nekaturen** akordioak lortu ditugun hornitzaileak onenak jarriko dizkizugu eskura. Horien artean, honakoak topatuko dituzu:

- Finantziazioa adosteko finantza-erakundeak, zure bezeroei begirako erraztasunak (Salmenta Puntuko Terminalak, etab.).
- Channel Managerren adituak, zure Nekaturreko egutegia OTAekin (Booking, Expedia, Airbnb, etab.) sinkronizatzeaz arduratzen den tresna digitala.
- Garbiketa-produktuetan adituak.
- Zerga, kontabilitate- eta lan-aholkularitza.
- Telefonía eta konektagarritasuna.

Etengabeko hobekuntza

Zure landa ostatur, beti, lehen egunean bezain eder ikus dadin, **Nekaturen** akordioak lortu ditugu abantailak segidako arlo hauetan eskaintzen dizkizuten hornitzaileekin:

- Energia-eraginkortasuna eta energia garbia.
- Somierrak, koltxoiak, etab. berritzea.
- Zeure web-orriaren diseinua.

Beste batzuk

- Urtean 1.000€rainoko aurrezkia berogailurako gasean.
- Medikú-asegurua; 500€ baino gehiagoko aurrezkia.
- Zure komunikazio-materialerako itzulpenak.
- Web-domeinuen hornitzaileak.
- Publizitatea web-atarietan.

AURKIBIDEA


ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATUREN



ZERBITZU-KATALOGOA

10



3.4.2 Zure bezeroarentzat

Bestalde, hornitzaileekin, kolektiboekin eta turismo-baliabideekin ere baditugu akordioak, zurean ostatu hartzen dutenei zuzenean mesede egiten dietenak.

Zu **Nekaturreko** bazkide izateak abantailak eta deskontuak eskaintzen dizkio zure bezeroari ere, zure landa ostatuan egonaldia erreserbatzen duen unetik.

Erakunde, kolektibo eta taldeetako kideak

Zenbait erakunde, kolektibo edo taldetako kide diren bezeroentzat, atxikitako landa ostatuetako egonaldietan **deskontuak** eskaintzen dizkieten akordioak lortu ditugu. **Gure webgunean** ikus ditzakezu eguneratutako akordio guztiak.

Baliabide turistikoak

Zure bezeroek Euskadiko tokirik esanguratsuenak bisitatu ditzaten eta hainbat jardueraz prezio hobean goza dezaten.

Deskontu hauek gure **doako NekaDeskontuak txartelarekin** jasotzen dira.

Erakunde, kolektibo eta taldeetako kideentzako akordioak.

NekaDeskontuak

AURKIBIDEA
ZERGATIK NEKATUR
GURE BALIOAK
ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK
NEKATURREKO TALDEA
NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN

3.5 Marketin-estrategia komunak diseinatzeko ditugu

Gure ostatu bazkideen ikusgarritasuna biderkatu egiten dugu sustapen-, komunikazio- eta merkaturatze-ekintzen bidez. Gainera, azken bezeroarentzako produktuaren sorkuntzan eta esperientzien diseinuan aholkatzen diegu elkartekideei.

3.5.1 Sustapena eta komunikazioa

Nekaturren webgunearen bidez

- Webgune erakargarria eta ongi kokatua dugu.
- SEO/SEM posizionamendu-ekintzak egiten ditugu bilatzaileetan. Horregatik, gure webgunea Googleko lehenengo postuetan agertzen da “landa ostatua Euskadin”, “nekazalturismoa Euskadin”, “landa etxea Euskadin” edo “landa apartamentua Euskadin” bezalako bilaketa-terminoetan”.
- Gure webguneak 400.000 bisita inguru izaten ditu urtean (%80 estatuko bisitariak eta %20 atzerriarrak).
- Gure ostatu bazkideen % 100 gure webgunean eta erreserba-sisteman daude, biak ere 5 hizkuntzatan eskuragarri eta informazio eguneratuarekin.

Beste hedabide batzuen bidez

Gure ostatu elkartekideen sustapena beste hedabide batzuen bidez ere egiten dugu:

- Eusko Jaurlaritza, Aldundi, eskualdeetako erakunde, turismo bulego eta abarren webguneak.
- Komunikabideetako web-orri erreferenteetan Nekaturren presentzia hobetzeko ekintzak:
 - Urtean 150 agerpen baino gehiago irrati eta telebistan.
 - Hitzarmenak hainbat komunikabiderekin: Berria, SUA, Herri Irratia, etab.
 - Kanpaina bereziak data jakinetarako, esate baterako, Gabonak, Aste Santua eta beste batzuk; tokiko ekitaldietarako eta kirol-, kultura- eta hainbat motatako ekitaldietarako, bisitarien traktoreak baitira.

AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN

ZERBITZU-KATALOGOA



AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN

nekatur 



- **Sare sozialak:** Etengabeko komunikazioa gure profil guztietan.
11.811 jarraitzaile baino gehiago Facebook-en, 4085 Instagram-en, 2.538 Xn, Youtubeko kanala.
- **E-mail marketina,** newsletterrak bidaliz aldizka.
- SEO/SEM ekintzak.
- Estatuko bezeroei nahiz bezero frantses/atzeritarrei zuzendutako publizitate-kanpainak.
- Publizitatean inbertitzen dugu etengabe.

Sustapen-materialen bidez

Urtero sustapenerako materiala argitaratzen dugu, bai geurea (mapak, gidak, orri-markatzaileak, bideoak, etab.), bai eta hirugarrenekin lankidetzan (Basquetour, Aldundiak...).

Ekitaldi eta azoken bidez

Ekitaldi, workshop eta estatuko (FITUR, EXPOVACACIONES, INTUR) eta nazioarteko azoketan (Salon Mondiale du Tourisme Paris, London, Berlin, etab.) parte hartzen dugu, eta sustapenen-material hori aurkezten dugu.

3.5.2 Merkaturatzea

Erreserba zentrala –NekaErreserbak

Webgunearen bidez zuzenean saltzen dugu. Zure ostatuaren erreserba, www.nekatur.net gunean ez ezik, telefonoz, txatez eta posta elektronikoz ere egin daiteke.

Halaber, turistak artatzen ditugu, zure ostatuan erreserba egiterakoan izan ditzaketen zalantzak argitzeko.

Gure erreserba zentralari buruzko datu interesgarriak:

- 650.000€ pasako fakturazioa/urtean gure ostatu bazkideek.
- Batez besteko egonaldia: 2,87 gau.
- Ostatuan egindako batez besteko gastua /egonaldiko: 373,27€.

Nekatur Erreserben Aplikazioa

Aplikazio bat jartzen dugu zure eskura, zure ostatua bisitarien eskura nola eta noiz jartzen duzun konfiguratu ahal izateko, jaso nahi dituzun erreserba motak aukeratuz. Zuk erabakitzen duzu nola saldu.

ZERBITZU-KATALOGOA



Bidaia Agentziak eta Tour Operadoreak

Tarifak eta beste abantaila batzuk negoziatzen ditugu Espainiako eta atzerriko bidaia- agentziekin, turistak gure ostatu elkartekideetara erakartzeko helburuz.

NekaBonuak eta NekaTxartela

- **NekaBonuak:** 3 bonu-modalitate 2 gaueko egonaldietarako.
- **NekaTxartela:** egonaldiak eta egonaldi gehi zerbitzuak ordaintzeko opari-txartela.

Lankidetza kanpoko proiektuekin

Euskadin Landa Turismoaren aldeko apustua egiten duten proiektuekin bat egiten dugu, **Nekaturen** erreserba-motorra haien webguneetan sartuta.

Fidelizazio-ekintzak

Informazio-buletinak bidaltzen dira deskontu zehatzen, sustapen-kodeen eta abarren berri emateko.

Familiarizazio-bidaiak – Famtrips

Bisitak eta bidaiak antolatzen ditugu blogariekin, prentsarekin eta aldizkari espezializatuekin.

Nekatur Bidaiak

Landa-turismoko esperientzia eta jarduerak merkaturatzea. Zure ostatua merkaturatzen dugu, eta aberastu egiten dugu, bisitarientzat proposamen erakargarriagoak sortzen dituzten beste jarduera batzuk eskainita.



AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATUREN

ZERBITZU-KATALOGOA



AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN


3.5.3 Turismo produktuak eta esperientziak sortzen laguntza

Nekaturren gure landa ostatu bazkideei laguntzen diegu, bezeroei balio erantsia eskaini ahal izateko. Horrela, bezero motaren arabera, landa ostatuekin lan egiten dugu, turismo-produktu segmentatuak sortzen laguntzen:

Aisiaren segmentua:



MICE segmentua:



Horrekin batera, **Nekaturren** bezero mota bakoitzarentzako turismo-esperientziak sortzen ere laguntzen dugu, gure landa ostatuetan egiten duten egonaldiak esperientzia osoa eskaini diezaien.



3.6 Zure beharretara egokitutako prestakuntza eskaintzen dizugu

Onenekin prestatzen zaitugu, zure negozioa hazteko eta zure bezeroen beharrei aurrea hartzeko. Ikasteko bisitak eta eskatutako ikastaroak antolatzen ditugu, betiere elkartekideen beharren arabera.

Araudiak betetzeko prestakuntza

Buruhausterik izan ez dezazun.

Nekaturren tresna teknologikoetan prestatzea eta gaitzea

Nekaturren zure eskura jartzen ditugun tresna teknologikoek sekreturik izan ez dezaten eta zure eguneroko lana erraztu dezaten:

- **NekaGest:** Zure landa ostatuaren kudeaketa integralerako programa.
- **Nekatur APPa:** NekaScan tresna, erreserba azkar kudeatzeko.
- **Channel Managerra:** Zure salmenten egutegia beste web-atari batzuekin sinkronizatzeko aukera ematen dizun tresna.
- Zeure web-orrirako **erreserba-motorra**.

Prestakuntza beste tresna teknologiko batzuetan

Beti berrikuntzen eta aurrerapen teknologikoen berri izan dezazun.

Landa ostatuetako jardunbide egoki jasagarrirei buruzko prestakuntza eta gaikuntza

Zure landa ostatua ekintza eta praktika jasagarrietan eguneratuta egon dadin.

Marketineko prestakuntza

Zure landa ostatua nola, non eta noiz sustatu eta ezagutarazi erabaki ahal izan dezazun.

Hizkuntzetako prestakuntza

Zure bezeroarekin bere hizkuntzan komunikatu ahal izan zaitez.

Espazioak hobetzeko prestakuntza

Zure ostatuko espazioak berrantolatu, altzariak birgaitu ditzazun,...

Topaketak, jardunaldiak eta bisita teknikoak

Jakintza-trukearen bidez zure esperientzia profesionala aberastuko duten ekitaldiak.

AURKIBIDEA


ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN



ZERBITZU-KATALOGOA



AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN

3.7 Landa turismoaren kalitatea, jasangarritasuna eta inklusibitatea bultzatzen ditugu

Nekaturen kalitatezko landa turismo jasangarri eta inklusiboaren alde egiten dugu, zure bezeroek esperientzia guztiz ona izan dezaten, era berean gure inguruneari hobetzen lagunduz..

3.7.1 Kalitatea

Nekaturen gure landa ostatu elkartekide guztien kalitate arloko etengabeko hobekuntza bultzatzen dugu.

- Kalitate-sistemak (SICTED, etab.) ezartzeko laguntza.

3.7.2 Jasangarritasuna

Tokiko kulturaren eta tradizioen babesa bultzatzen dugu, bai eta kultura-ondareko elementuena ere, tokiko komunitateak jarduera turistikoetan inplikatzuz, jarduera horietatik eratorritako onura ekonomikoak, sozialak eta kulturalak jaso ditzaten, enpleguan arreta berezia jarritz.

Nekaturen jardunbide egoki jasangarriak

Gure bazkideen eskura jartzen dugu Jardunbide Egoki Jasangarrien Gida, praktika horiek ezartzeko aholkuak emanez eta autodiagnostikorako doako galdetegia egitea sustatuz.

Horrela, **Nekaturek** prestakuntza-tailer praktikoak eskaintzen ditu doan, gure landa ostatu kideek beren energia-kontsumoa murrizteko, ura aurrezteko, modu eraginkorrean kudeatzeko hondakinak minimizatuz, eta norberak edo tokiko nekazariak ekoiztiko elikagaiei lehentasuna emateko, besteak beste.

Energia eraginkortasuna

Jardunbide Egoki Jasangarrien Gidarekin zuzenean lotuta, **energia-eraginkortasuneko proiektuak egiten ditugu ostatu elkartekideentzat, hasieratik amaieraraino.**

Zerbitzu integral bat izateko aukera eskaintzen dugu, energia-eraginkortasuneko proiektua zehatz-mehatz aztertu eta diseinatzetik hasi, eta kasu bakoitzean proposatutako instalazioaren baimenak eta dirulaguntzak, finantziazioak eta mantentzea kudeatzeraino (eguzki-energia fotovoltaikoa, aerotermia, geotermia, biomasa, arkitektura, domotika, luminariak, karga-estazioak...).

OSTATU JASANGARRIAK ETA INKLUSIBOAK



Euskadiko Kode Etikoa

Eusko Jaurlaritzak sustatuta, turismo-enpresen eguneroko jardunean erantzukizuna eta jasangarritasuna integratzea du helburu, errespetua eta elkar ulertzen laguntzea oinarri hartuta.

Nekaturren bereizgarri hori lortu dugu eta elkartekideen atxikimendua sustatzen dugu.

Ekoturismoa

Nekaturren Euskadiko Ekoturismo Sareko eta Espainiako Ekoturismo Elkarteko kideak gara.

Gure elkartetik gure bazkideak Ekoturismoko Klubera atxikitzea errazten dugu. Horren bidez, naturaguneak babestuko dituzten eta haien kontserbazioa lehenetsiko duten esperientziak eta jarduerak sustatzeko konpromisoa hartzen da.

Ecolabela

Gure landa ostatu elkartuek Ecolabel, Europako Etiketa Ekologikoa, izan dezaten sustatzen dugu. Etiketa horrek bermatzen du hura daramaten ostatuak ingurumenaren gaineko eragina murrizteko lan egiten dutela, baliabideen erabilera eraginkorra sustatzen dutela eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzen dutela, turismoaren jasangarritasunari lagunduz.



3.7.3 Inklusibitatea

Gure landa ostatu bazkideen inklusibitatea bultzatzeak lehentasuna du **Nekaturrentzat**. Mota guztietako ostalariak hartzearen alde gaude, aniztasuna eta tolerantzia uztartuz.

Turismo-irisgarritasunaren eredua

Gure landa ostatueta irisgarritasun- eta inklusio-neurriak ezartzen laguntzen dugu. Ingurune eta zerbitzu irisgarriek gure ostatuaren kalitatea, segurtasuna eta erosotasuna hobetzen dute, eta gizarte osoari egiten dio mesede.

Bai Euskarari

Tokiko kultura eta tradizioak bultzatzen ditugu, eta horiek ez dira ulertzen euskara zaindu gabe. Bai Euskarari ziurtagiria dugu, euskararen sustapenean eta erabileran egindako lana identifikatzen eta aitortzen duena, eta gure elkartekideei ziurtagiria lortzen laguntzen diegu.

Queer Destinations Committed

Queer Destinations Committed ziurtagiria lortzeko burutzen den metodoa babesten dugu. Horren bidez, gure landa ostatuak LGBTIQ+ komunitatearentzako diskriminaziorik gabeko espazioa direla bermatzen da. **Nekaturrek**, elkarte gisa, badu ziurtagiri hau.

AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN

ZERBITZU-KATALOGOA

Nekaturreko taldea



AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN

nekatur

Nekaturen bulego teknikoak lau pertsonak osatzen dute, profil teknikoak eta esperientzia zabala dutenak. Landa Turismoaren produktuen kudeaketan, garapenean eta merkaturatzean.

Tlf: 943 32 70 90

agroturismo@nekatur.net

+ INFO



Idoia
Ezkurdia Iturriotz
Zuzendaria



Iban
Lopitz
Teknikaria



Ane
Cospedal Manterola
Teknikaria



Amaia
Pagola Ansa
Teknikaria

ZERBITZU-KATALOGOA

Nola egin bazkide Nekaturren



Nekaturren bazkide egitea prozesu erraza da eta une desberdinetan egin dezakezu:

- Irekitzeko proiektuan zaudenean.
- Zure landa ostatua REATEn alta eman duzunean.
- Aurretik funtzionamenduan dagoen landa ostatua erosi/alokatu baduzu.
- Landa ostatu bat kudeatzen denbora badaramazu.

Azken batean, edozein unetan.


5.1 Irekitzeko prozesua

5.1.1 Nekaturren aurreatxikitu nahi duzu?

Nekaturrekin bat egin dezakezu Euskadiko nekazalturismo, landetxe edo landa apartamentu turistiko bat irekitzeko proiektua baduzu. Prozesua oso erraza da: aurreatxikitze konpromiso bat sinatuko duzu, zure establezimendua ireki bezain laster gauzatu beharko duzuna, eta **Nekatur** familiaren parte izango zara.

Nekaturren hasieratik laguntzen dizugu, sarean lan eginez indarrean dagoen araudia bete dezazun, praktika jasagarrirei eta inklusibitateari buruzko aholkuak emanez, eta hornitzaileekin akordio onuragarriak eskainiz.

AURREATXIKITZEKO FORMULARIOA



AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN

ZERBITZU-KATALOGOA

20



5.1.2 Nola laguntzen dizugu irekitzeko prozesuan?

Nekaturen zure landa ostatua irekitzeko prozesuan lagunduko dizugu eta, horretarako, honako hauek eskainiko dizkizugu:

- 1. Lege- eta arau-aholkularitza: Nekaturrek** informazio eguneratua ematen dizu indarrean dagoen turismo-araudiari buruz, eta lege-baldintzak betetzen direla bermatzeko aholkuak ematen dizkizu, eta horrek zigorrak saihesten eta zure negozioa behar bezala kudeatzen lagunduko dizu.
- 2. Laguntza kudeaketa administratibo eta finantzarioetan:** Elkartek laguntza eman diezazuke laguntzak, dirulaguntzak edo bideragarritasun-azterketak eskatzeko beharrezko dokumentazioa prestatzen, bai eta administrazio-prozesuetan ere, esate baterako Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan alta ematean (REATE). Horrek zure lan-zama arinduko du, eta zure ostatuaren eguneroko jardueran zentratzea ahalbidetuko dizu.
- 3. Laguntzak eta dirulaguntzak eskuratzea: Nekaturrek** turismo-sektorerako eskuragarri dauden laguntza eta dirulaguntzen berri ematen dizu, eta eskaera-prozesuan gidatzen zaitu, horiek kudeatzen dituzten erakundeekin zuzenean harremanetan jarritz, zure negozioaren bideragarritasun ekonomikoa hobetzen eta haren hazkundera eta garapena errazten lagunduz.
- 4. Hornitzaileekiko akordio ekonomiko onuragarriak:** Elkartek zure aurrezkiaren aldeko akordio ekonomikoak negoziatzen ditu, zerbitzuen eta produktuen hornitzaileekin araudiak betetzeko (erantzukizun zibileko aseguruak, behe-tentsioko ikuskapenak eta autobabeserako planak, besteak beste), zure ostatua kudeatzeko (akordioak banketxeekin, adibidez), eta mantentze-lanetarako eta etengabeko hobekuntzarako (energia-eraginkortasuneko proiektuekin, adibidez).

AURREATXIKITZEKO FORMULARIOA



AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATUREN



ZERBITZU-KATALOGOA



Olatzen
testigantza
Adaka
nekazalturismoa

“Hasieratik sentitu dugu Nekaturreko taldearen gertutasuna, era guztietako gaiekin lagunduz, txikienetatik handienetaraino. Edozein zalantza adierazi diegunean, beti lortu dugu konponbideren bat. Asko baloratzen ditugu bideoen bidez eskaintzen dituzten prestakuntza eta ikastaroak ere; horien artean, 2 gai aipatzearren, ostatuaren egunerokotasuna nola kudeatu eta eskaintzen dizkiguten irtenbide digitalek nola funtzionatzen duten azaltzen digute. Irtenbide digital horiei buruz, esan beharra dago oso lagungarriak direla erreserbak kudeatzeko eta Ertzaintzari eman behar diogun dokumentazioa bidaltzeko, oso erraza bihurtzen baitute prozesua”.

Justo eta Nora
testigantza
Aista Landetxea

“Edozein kontsulta edo zalantza adierazten diegunean Nekaturreko lantaldetik jasotzen dugun babesa azpimarratuko genuke. Gauza berri edo oso espezifiko bati buruz galdetzen badiegu eta berehalako erantzunik ez badute ere, berehala informatzen dira eta lehenbailehen erantzuten dizute. Talde hori edukitzea oso lagungarria da guretzat, eta, gainera, tratu hurbila eta atsegina ematen digute beti. Bestalde, maila teknologikoan, eskura jartzen dizkiguten aplikazioak oso erosoak eta erabilgarriak dira gure egunerokotasunerako”.

AURKIBIDEA
ZERGATIK NEKATUR
GURE BALIOAK
ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK
NEKATURREKO TALDEA
NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN

5.2 Nekaturri atxikitze baldintzak

Euskadiko Landa Ostatuaren Elkartea den **Nekaturren** parte izateko, baldintza hauek bete behar dituzu:

- Martxan izatea Euskadin indarreko araudia betetzen duen nekazalturismo, landetxe edo landa apartamentu turistiko bat.
- Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak emandako irekiera-lizentzia izatea edo erantzukizunpeko adierazpena.
- Erantzukizun Zibileko Asegurua izatea.

ATXIKITZEKO FORMULARIOA



Nekazalturismo

Landetxe

Landa apartamentu
turistiko

Erantzukizunpeko
adierazpena

Erantzukizun
Zibileko
Asegurua

AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN



ZERBITZU-KATALOGOA



5.3 Nola izan Nekaturren parte: bazkide egiteko pausoak

5.3.1 Zure landa ostatua aurreatxikitze eskaera-prozesua

Oraindik landa ostatua irekitzeko prozesuan bazaude, **Nekaturrekin** bat egin dezakezu emango dizugun aurreatxikitze-konpromisoa sinatuta, eta establezimendua ireki bezain laster gauzatu beharko da behin betiko atxikitzea.

5.3.2 Zure landa ostatua atxikitze eskaera-prozesua

Landa ostatu bat martxan baduzu Euskadin, prozesu hau jarraitu behar duzu **Nekaturreko** bazkide egiteko:

- 1. “Aurkeztu beharreko dokumentuak” atalean zehazten den dokumentazioa entregatu.
- 2. Establezimendua bisitatzeko hitzordua adostu Nekaturreko arduradun batekin.
- 3. Bisitako txostena Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bileran aurkeztu, haiek erabakiko dute zure onarpena Elkartean.

Zuzendaritza Batzordeak zure **onarpen-eskaera** ontzat emanda, zure alta-prozesua hasiko da ostatu bazkide gisa. Prozesu hau 4 pausotan datza:

- 1. Atxikitze-kuota ordaindu beharko duzu. Aurreatxikitzea eskatua bazenuen landa ostatua martxan jartzen zenuen bitartean, kuota honetatik deskontatuko zaizu aurrez ordaindutakoa.
- 2. Nekaturren zure landa ostatuaren informazio guztia sartzen hasiko gara elkartearen euskarrietan: web-orria, sustapen-materiala, datu-basea, etab.
- 3. Eskaintzen dizkizugun tresna eta zerbitzu guztietarako sarbidea emango dizugu.
- 4. Bilera birtuala adostuko dugu, tresna hauen berri emateko.

5.4 Aurkeztu beharreko dokumentuak

Hauek dira **Nekaturen** bazkide egiteko aurkeztu beharreko dokumentuak:

1. Atxikitze-formularioa, Nekaturen emango dizugu.
2. Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak emandako irekiera-lizentzia edo erantzukizunpeko adierazpena.
3. Erantzukizun Zibileko Aseguruaren kopia.
4. Ostatu-arduradunaren nortasun agirikoaren tamainako argazkia.



AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATUREN

Bidali aurretik, ziurtatu behar bezala bete duzula eta dokumentu guztiak entregatu dituzula. **Aurkezteko 3 modu jartzen dizkizugu aukeran:**



Gure web-orriaren bidez, bidalketa-formularioa beteta eta dokumentuak erantsita

AURREATXIKITZE FORMULARIOA

ATXIKITZE-FORMULARIOA



Posta **elektronikoz** helbide honetan: **agroturismo@nekatur.net** formularioa beteta eta eskatutako dokumentuak erantsita.



Aurrez aurre **Donostiako gure bulegoan, Zuatzun**
Edificio PIA Eraikina
Juan Fermin Gilisagasti, 2
310 Bulegoa

Eskatu hitzordua etorri aurretik!

943 32 70 90

ZERBITZU-KATALOGOA



5.5 Kuotak

5.5.1 Aurreatxikitze konpromisoaren kuota

Zure landa ostatua irekitzeko prozesuan bazaude, Nekaturrekin bat egin dezakezu aurreatxikitze-konpromisoa sinatuta, eta ireki bezain laster gauzatu beharko da behin betiko atxikitzea.

Aurreatxikitze konpromisoaren kuota

Kuota honek **Nekaturrek** irekiera-prozesuan emandako aholkularitza hartzen du barne. Gainera, dagoeneko eskura izango dituzu Nekaturrekin hitzartutako hornitzaileekin negoziatutako abantailak eta deskontuak.

*50€

*hauek ostatua irekitzean ordaindu beharreko atxikitze-kuotatik deskontatuko zaizkizu.

5.5.2 Atxikitze-kuota eta urteko kuota orokorra

Nekaturreko bazkide izateko atxikitze-kuota eta urteko kuota ordaindu beharko dituzu.

Atxikitze-kuota

Atxikitze-kuota behin bakarrik ordaintzen da, eta elkartearen funtzionamendu egokirako ezinbestekoa den kalitate-estandarra mantentzea ahalbidetzen digu.

• ATXIKITZE-KUOTA: 150€

Barne hartzen ditu: sarbidea + **Nekatur** plaka + online/telefono bidezko prestakuntza **Nekaturen** tresnetan.

ATXIKITZE-KUOTA

150€



AURKIBIDEA

ZERGATIK NEKATUR

GURE BALIOAK

ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

NEKATURREKO TALDEA

NOLA EGIN BAZKIDE NEKATUREN

ZERBITZU-KATALOGOA

26




Urteko kuota orokorra

Urteko kuota elkartearen funtsezko zerbitzuak eta tresnak mantentzeko tarifa da. Kopuru hau kalkulatzeko **130€ +ostatuko egun bateko okupazioa (dependentzia kopurua hauen batez besteko prezioarekin biderkatuta kalkulatzen da) eta 12 hilabetetan banatzen da.**

ADIBIDEA

6 gelako ostatu baten urteko kuota, logelako batez besteko prezioa 60€ duena, honela kalkulatzen da:

- 6 gela x 60€ (gelaren prezioa BEZ gabe) = 360€ (1 eguneko okupazioa) + 130€ (kopuru finkoa) = 490€ zati 12 hilabete = 40,83€ hilean.



5.5.3 NekaErreserben kuota

www.nekatur.net webguneko erreserba-sistemaren bidez zure ostatuan egindako erreserben guztizko zenbatekoaren % 10eko kuota.

AURKIBIDEA
ZERGATIK NEKATUR
GURE BALIOAK
ELKARTEKIDEENTZAKO ZERBITZUAK
NEKATURREKO TALDEA
NOLA EGIN BAZKIDE NEKATURREN

*Konfiantza
ereiten dugu*



nekatur

Euskadiko landa ostatuen elkarte
Asociación de alojamientos rurales de Euskadi

gara

www.nekatur.net